



Info

LAN OSASUNA

2020ko martxo

KORONABIRUSAREN AURREAN, GURE OSASUNA ESKUBIDE BAT DA



Martxoaren 16an, Macron presidentek hitza hartu du bakoitzak gure etxeetan egon gaitezen eskatzeko eta hori bederen eta minimoki 15 egunenentzat, gure joan jinak ahal bezain bat gutxituz.

Momentu berdinean, lanera joateko eskubidea ematen du Macron-ek. Enpresa askotan ezin da behar den bezala konfinatu eta kutsatzeko arriskua hartzen dugu. Hori guztia erabat ilogikoa eta arriskutsua da.

Dakigun bezala, enpresetan, nagusiek dituzte gauzak erabakitzen eta gure kabuz erabakirik ez dugu hartzen ahal, beraz kontuz ibili.

Nagusiak esan behar dizue ea telelanaren bitartez etxetik lan egiten ahal duzuen edo ez; edo langabezi partzalean emanak izanen zareten. Azkenik gelditua izateteko eskubidea daukazue 16 urte baino guttiagoko haurrek etxean zaindu behar badituzue.

Beraz:

- Edo gaixotasunagatik geldituak gara.
- Edo telelana bitartez lan egiten dugu
- Edo langabezi partzalean gara
- Edo kondenatua gara lanean egoteko eta arriskua hartzen dugu kutxatua izateko.

LAB-entzat

1 - Frantziako gobernuak hartu dituen neurriak ez dira nahikoak eta gainera berandu datoz.

2 - Hartu diren erabakiek egungo sistema kapitalistaren irizpide produktibo eta ekonomikoei baino ez die erantzuten eta inola ere ez langileen osasunari, eta ondorioz gaizki eta berandu hartutako neurri hauek ez dute lortzen koronabirusaren hedapena geldiaraztea.

3 - Ez da logikoa bizitzen ari garen egoera larri honetan etxean gelditzeko gomendatu eta egunero lantokira joan behar izatea geure osasuna ez ezik gure lankideena zein familiaena arriskuan ezarriz.

4 - Oinarrizko zerbitzuak ahalbidetzen dituzten sektoreak izan ezik (zaintza, osasuna, elikagaiak, garbiketa, garraioa, energia eta ura) Ipar Euskal Herriko aktibitate profesional oro gelditzea guztioi dagokigun ardurazko ariketa bat da testuinguru larri honetan.

Hori dela eta, exigitzen dugu telelanaren bidez lan egin ezin duten eta ezinbestekoak ez diren enpresei haien aktibitateak geldiaraztea. Langile guztiei jakinarazi behar zaie etxera itzuli behar direla lan baldintza zein soldatetan inolako eraginik izan gabe eta abisu berri bat izanen duten arte.

Haien lan eta osasun egoerarekin kezkatuak diren langile guztiak ahal bezain fite sindikatuarekin harremanetan sartzeko gomitatzen ditugu.

LAB sindikatua
10 place Sainte Ursule - 64100 Baiona
05 59 59 50 20 - email : baiona@lab.eus



www.lab.eus